

PRENTSA OHARRA

"Gelditu Parada" dokushowak IV. EikenBANKeko sari nagusia eskuratu du

- Rubén Martínez donostiarraren "Gelditu Parada", nagusitu da, www.eikenbank.com webgunean aurkeztu diren 64 proiektuen artean.
- Saioa Pausokak ekoitziko du, eta ETBn emango da.

Bilbon, ekainaren 9an. "Gelditu Parada" saio freskoa eta berritzailea da, eta jendeak autobusean bidaiatzen duenean pentsatzen duena du hizpide. Proiektu honek eskuratu du IV. EikenBANKeko sari nagusia. Epaimahaikideen ustez, Rubén Martínez donostiar gaztearen proiektua originala eta bideragarria da, eta ikus-entzunezko proiektu gisa garatzeko baldintzak betetzen ditu. Hortaz, Rubén Martínezek 2.000 euroko saria jaso du, eta baita Pausoka ekoizpen-txean trebatzeko beka ere. Gainera, Pausokak berak proiektua ekoitziko du.

Bestalde, bigarren eta hirugarren saria ere eman ditu aurten EikenBANKek. Hain zuzen ere, Aitor Gametxo, María Elorza eta Maddi Castro UPV/EHUko ikasleen "Rituales" proiektuari eman diote bigarren saria, eta David Gamboaren "Euskadi sin asfalto" reality-ari, berriz, hirugarrena. Proiektu bakoitzak 2.000 euroko saria jasoko du. Gainera, aurten estreinakoz eman diren Lan Ekintza Bilbao beketako bat jaso du "Rituales" proiektuak.

"Okupenea" fikziozko sailak eta "Euskarabaneros" proiektuak ere beka bana jaso dute (BBK Gazte Lanbidean beka eta Lan Ekintza beka, hurrenez hurren). Azkenik, "Magia tiro pun!" proiektuaren sortzaileek epaimahaiaren aipamen berezia jaso dute, proiektuaren defentsa onenagatik ("pitching").

Sariak, EITBko Bilboko egoitzan egin den ekitaldi berezian eman dira ezagutzera. Aizpea Goenaga Etxepare Institutuko zuzendaria eta Juan Mari Gurrutxaga EIKENeko lehendakaria izan dira ekitaldiko buru, eta honako hauek ere bertara bildu dira: Patxi Arratibel EITBko Estrategia eta Kanpo Harremanetarako zuzendaria, Juan Antonio Arrieta Lan Ekintzako zuzendaria, Arantza Gandariasbeitia BBK Gazte Lanbidean-eko zuzendaria, eta Iñaki Lopez de Agileta Bilboko Udaleko Kultura zuzendaria. Gainera, heziketa zentroetako ordezkari gisa, honako hauek ere bildu dira ekitaldira: Carmelo Garitaonaindia UPV-EHUko Bizkaiko Campuseko errektoreordea, Álvaro de la Rica Deustuko Unibertsitateko Bizkaiko Campuseko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko dekanordea, Aitor Zuberogoitia Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioaren Gradu zuzendaria, eta Iñaki Aizpuru Andoaingo Zine eta Bideo Eskolako zuzendaria.

EikenBANK PROGRAMA

Sari banaketak amaiera eman dio duela hiru hilabete hasi zen prozesuari. Orduan, EikenBANK programaren bultzatzaile den Euskadiko Ikus-entzunezko Klusterrak (Eiken) IV. edizioko ideiak aurkezteko epea zabaldu zuen, oraindik ikus-entzunezkoen munduan lanean ari ez diren edo

asmo hori duten gazte sortzaileek beren proiektuak aurkezteko (dokumentalak, telebistako lehiaketak eta saioak, film luzeak, film laburrak..). Harrezkero, 64 ideia erregistratu dira ekimena kudeatzen duen webgunean, lehenengo EikenBANKen erregistratu ziren proiektuen (27) bikoitza baino gehiago.

EikenBANKeko arduradunek ahalegin handia egin dute aurten, urteko lehenengo hiru hilabetean ekimena heziketa-zentroetako, zine eskoletako eta ikus-entzunezkoekin erlazionatutako hainbat unibertsitate titulutako ia bostehun ikasleren aurrean aurkezteko. Izan ere, **talentu ez-profesionala aurkitzea eta enpresekin harreman zuzenean jartzea** da Eikenek 2008an martxan jarri zuen programa berritzaile honen helburu nagusia. Hala, lankidetzaz horren bidez, produktu lehiakor berriak sor daitezke euskal ikus-entzunezkoen sektorean.

Hain zuzen ere, enpresaren eta talentuaren arteko harreman zuzena sustatze aldera, EikenBANKeko sari banaketan (gaur, 19:00etan, EITBko eraikineko Multibox Aretoan) *Face to Face* (F2F EikenBANK) bat antolatu da, finalistei ekoizpen-etxeekin harremanak egiteko eta esperientziak trukatzeko aukera emateko asmoz. Saioan lan mahai profesionalak antolatu dira (20 elkarrizketatik gora zeuden aurreikusita bertako agendan), eta beren ideiak sektoreko enpresei aurkezteko aukera eman zaie proiektuak lehiaketara aurkeztu dituzten guztiei, finalistak izan ala ez.

Klusterreko hamahiru enpresak parte hartzen dute EikenBANKen. Honako hauek, hain justu: **3Koma, Baleuko, BartonFilms, Canal Bizkaia, EITB, Idem, Irusoin, Jarkatza, K 2000, Orio Produzioak, Pausoka** eta **Signo digital**. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza eta Merkataritza Sailaren eta Kultura Sailaren, Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailaren, Lan Ekintza Bilbao Elkartearen, Bilboko Udalaren eta BBK Gazte-Lanbidearen babesa ere badu.

Erakundeek positibotzat jo dute euskal ikus-entzunezkoen sektoreko enpresa nagusiek bat egin izana **talentu ez-profesionalaren aldeko proiektu honetan parte hartzeko**. Aurreko urtean bezalaxe, UPV/EHUren, Mondragon Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen eta EAEko ikus-entzunezkoen eskola eta zine eskola guztien babesa izan du ekimenak.